

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	Uribe-Kosta B.H.I.	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	Batxilergoa	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	1
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	Ekonomia		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	Hizkuntzak, matematika, kultura zientifikoa, Enpresa, Geografia, Historia, Filosofia		
diziplina barruko oinarrizko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares</i> <i>básicas asociadas</i>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia 2. Matematikarako konpetentzia 3. Zientziarako konpetentzia 4. Teknologiarako konpetentzia 5. Konpetentzia sozial eta zibikoa 6. Arterako konpetentzia 7. Konpetentzia motorra 		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Iker Ugarte Labaka Mikel Galarza Idirin	ikasturtea: <i>curso:</i>	2016 - 17

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Gizarteek zer oinarrizko arazo ekonomiko dituzten ezagutzea, eta arrazoitzea azaltzen duen	1.1 Badaki eskasia eta hautatzeko beharrezana direla sistema ekonomikoaren oinarrizko arazoaren faktore

<p>sistema ekonomiko batean haiei konponbidea emateko modua, eta haren abantailak eta desabantailak adieraztea.</p> <p>2. Ekonomian erabiltzen den metodo zientifikoa ulertzea.</p> <p>3. Ekoizpen-prozesuaren ezaugarri nagusiak aztertzea.</p> <p>4. Lanaren banaketa teknikoaren prozesuaren arrazoiak azaltzea.</p>	<p>giltzarriak.</p> <p>1.2 Sistema ekonomiko nagusiek arazo horiek lantzeko eta konpontzeko modu bereziak dituztela egiaztatzen du.</p> <p>1.3 Adibide zehatzak oinarri hartuta, loturak ezartzen ditu nazioarteko egitura ekonomikoan berriki izan diren aldaketak eta haiek azaltzen dituzten tendentzia eta gertakizun teknikoak, ekonomikoak eta politikoak.</p> <p>1.4 Arazo ekonomikoei konponbidea emateko moduak konparatzen ditu, eta nazioartean gaur egun nabarmentzen diren egoera ekonomikoen adibideak erabiltzen ditu lan hori egiteko.</p> <p>2.1 Bereizi egiten ditu proposamen ekonomiko positiboak eta proposamen ekonomiko arautzaileak.</p> <p>3.1 Produkzio-sistemaren funtzionamenduaren ikuspegi osoa azaltzen du, eta lan hori egiteko, enpresetatik eta sektore ekonomikoetan duten eginkizunetatik abiatzen da, eta haien arteko loturak eta mendetasunak nabarmentzen ditu.</p> <p>3.2 Produkzio-faktoreen kategoriak eta produktibitatearen, efizientziaren eta teknologiaren arteko harremanak adierazten ditu.</p> <p>3.3 Enpresak aztertuta eta haien sektore-agregazioari eta elkarren arteko mendekotasunari erreparatu ondoren, sistema produktiboaren ikuspegi orokor bat eskuratu du.</p> <p>3.4 Ezagutzen ditu Euskal Herriko eta Espainiako egitura produktiboaren ezaugarri orokorrak, eta badaki zer-nolako harremana duten egitura horiek Europar Batasuneko herrialdeekin eta merkatu globalaren aldaketekin.</p> <p>4.1 Testuinguru globalean gertatzen den elkarren arteko mendekotasun ekonomikoarekin lotzen du lanaren banaketa teknikoa.</p> <p>4.2 Lan-merkatuaren elementu nagusiak identifikatzen ditu eta haren jokabideak antzematen.</p> <p>4.3 Elkarren arteko mendekotasun ekonomiko gero eta handiagoarekin eta koordinazio-mekanismoen beharrianarekin lotzen du prozesu hori.</p> <p>4.4 Lanaren eskaintzan eta eskarian izandako aldaketak adierazten ditu; bereziki, migrazio-mugimenduekin lotutakoak.</p> <p>5.1 Enpresen jardueraren ondorioak aztertzen eta analizatzen ditu, bai bere inguruan, bai nazioartean</p> <p>5.2 Enpresen helburuak eta funtzioak aztertzen eta</p>
---	--

<p>5. Enpresa-jardueraren helburuak, eginkizunak eta gizartean eta pertsonen bizitzan dituen ondorioak azaltzea, eta inguruneko benetako erreferentziak bilatze (herrikoak, probintziakoak, Euskal Herrikoak).</p> <p>6. Enpresen kostuak eta etekinak kalkulatzeko eta erabiltzeko; emandako kasu batetik, enpresa baten ekoizpen-funtzioa aztertzea, eta kontzeptu horiei buruzko grafikoak egiten eta interpretatzea.</p> <p>7. Efizientzia teknikoa eta efizientzia ekonomikoa lotzea eta bereiztea.</p> <p>8. Merkatuaren funtzionamendutik abiatuta, ondasunek eta zerbitzuek zenbait aldagairen arabera dituzten aldaketak interpretatzen jakitea.</p> <p>9. Benetako merkatuen funtzionamendua aztertzea, ereduakiko aldeak aurkitzea, eta kontsumitzaileentzat, enpresentzat eta estatuentzat dituzten ondorioak aztertzea.</p> <p>10. Magnitude makroekonomiko nagusiak bereiztea, haien arteko erlazioak aztertzea, eta bizi-kalitatea neurtzeko dituzten eragozpenak eta mugak aintzat hartzea.</p>	<p>analizatzen ditu.</p> <p>5.3 Enpresen funtzioak azaltzean, ondasunak sortu eta ondasunen erabilgarritasuna handitzeko funtzioa azaltzen du.</p> <p>6.1 Kostu askotarikoak ulertzen eta erabiltzen ditu – aldakorrak, guztizkoak, batezbestekoak eta marjinalak–, eta kostuen grafikoak egiten eta interpretatzen ditu.</p> <p>6.2 Enpresen etekinak aztertzen eta interpretatzen ditu, epe bateko diru-sarrerak eta kostuak aintzat hartuta.</p> <p>6.3 Emandako datuak aintzat hartuta, produkzio oso eta marjinalen eta batezbesteko produkzioen grafikoak egiten eta interpretatzen ditu.</p> <p>7.1 Efizientzia teknikoa eta ekonomikoa zehazten eta interpretatzen ditu, planteatzen zaizkion egoerei erreparatuta.</p> <p>8.1 Grafikoen bidez irudikatzen ditu merkatuen funtzionamenduko aldagaien aldaketek dakartzaten efektuak.</p> <p>8.2 Eskaintza eta eskaria erabakitzen duten faktore giltzarriak adierazten ditu.</p> <p>8.3 Eskaintzaren eta eskariaren elastikotasuna aztertzen du, eta interpretatu egiten ditu prezioen eta kantitateen aldaketak eta guztirako diru-sarreretan duten eragina.</p> <p>9.1 Ulertzen du merkatu mota nagusien funtzionamendu idealaren logika: lehia perfektua, monopolioa eta oligopolioa.</p> <p>9.2 Kasu errealean erabiltzen du jakintza hori, esperientzia zuzenean oinarrituta.</p> <p>9.3 Merkatu horietan parte hartzen duten eragileekiko ondorio positiboak eta negatiboak balioesten ditu.</p> <p>10.1 Makromagnitude nagusiak sailkatzen ditu: aberastasun nazionala, produktu nazionala, errenta nazionala, gastu nazionala, errenta pertsonala, errenta erabilgarria, aurrezki eta kapital-eraketa gordina.</p> <p>10.2 Egiturazko balioa eta konparaziorako erabilgarritasuna dutela aitortzen du.</p> <p>10.3 Magnitudeen arteko loturak egiten ditu.</p> <p>10.4 Ikuspegi kritiko batez balioesten ditu adierazle horiek gizartean garapen-maila ezagutzeko dakartzaten mugak, beste adierazle batzuekin alderatuta; esaterako, giza garapenaren indizearekin alderatuta.</p>
---	---

<p>11. Tresna informatikoekin zifrak eta oinarritzko adierazle ekonomikoak interpretatzea eta lantzea.</p> <p>12. Lan-merkatuaren egitura eta hezkuntzarekin eta prestakuntzarekin dituen loturak balioestea, eta langabezia bereziki aztertzea, Euskal Herriko, Espainiako eta Europar Batasuneko estatistikak erabiliz.</p> <p>13. Euskal Herriari, Espainiari eta Europar Batasunari buruzko inflazio-datuak eta langabezia-datuak aztertzea, eta inflazioari eta langabeziari aurre egiteko dauden alternatibak aztertzea.</p> <p>14. Dirua nola sortzen den, haren balioa nola aldatzen den eta hori nola neurtzen den deskribatzea.</p> <p>15. Inflazioaren arrazoiak bereiztea eta kontsumitzailearengan, enpresetan eta oro har ekonomian dituen ondorioak azaltzen dituzten teoriak ezagutzea.</p> <p>16. Finantza-sistemaren funtzionamendua azaltzea eta haren produktu eta merkatu nagusiak ezagutzea.</p> <p>17. Moneta-politikak aztertzea.</p> <p>18. Europako Banku Zentralak zer eginkizun duen eta haren moneta-politikak zer egitura duen jakitea.</p>	<p>11.1 Aldagai makroekonomiko askoren taula eta grafikoen informazioa erabiltzen du, eta denboran izan duten bilakaera interpretatzen du.</p> <p>11.2 Erreferentziazko azterlanek datu espezifikoak ematen dituztela balioesten du, eta ekonomialariek erabilitako azterketa-metodoak ulertzen ditu.</p> <p>11.3 Makromagnitueen datuak eskuratu eta lantzeko eta emaitzak eta konklusioak lortzeko baliatzen ditu informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.</p> <p>12.1 Lan-merkatuaren gaineko datu eta grafiko ekonomikoak balioesten eta interpretatzen ditu.</p> <p>12.2 Hezkuntzaren, prestakuntzaren eta enpleguaren arteko loturak balioesten ditu.</p> <p>12.3 Enpleguarekin lotutako aukerak eta tendentziak ikertzen eta antzematen ditu.</p> <p>13.1 Badaki nola aztertu zer aukera ematen dituzten politika makroekonomikoen inflazioari eta langabeziari aurre egiteko hainbat eremu geografikotara.</p> <p>14.1 Badaki diruak eta finantza-sistemak zer oinarritzko funtzionamendu duten ekonomian.</p> <p>15.1 Inflazioaren arrazoiak identifikatzen ditu.</p> <p>15.2 Inflazioaren ondorio ekonomiko eta sozial nagusiak balioesten ditu.</p> <p>16.1 Finantza-sistemaren egitekoa balioesten du, aurrezkoa inbertsiora bideratzeko elementua den aldetik, eta haren osagai diren produktuak eta merkatuak identifikatzen ditu.</p> <p>17.1 Ikuspegi kritiko batez arrazoitzen ditu, testuinguru errealean, moneta-politikaren ekintzak eta haien eragin ekonomikoak eta sozialak.</p> <p>18.1 Badaki zer helburu eta eginkizun dituen Europako Banku Zentralak, eta haren egitekoaren eta funtzionamenduaren gaineko arrazoibideak ematen ditu.</p> <p>18.2 Interes-tasen aldaketak ekonomian dituen ondorioak azaltzen ditu.</p> <p>19.1 Nazioarteko merkataritza-fluxuak identifikatzen ditu.</p> <p>19.2 Badaki zer esanahi duten ordainketa-balantzako sail nagusiek.</p>
---	--

<p>19. Ordainketa-balantza baten oinarritzko egitura eta bi ekonomiaren arteko merkataritza-fluxuak aztertzea, eta adieraztea zer eragin dituen haren osagaietan monetak izan ditzakeen truke-tasaren aldaketak.</p> <p>20. Ekonomia-integrazioaren prozesuak aztertzea eta Europar Batasunaren kasuan zer urrats eman diren deskribatzea.</p> <p>21. Ekonomiaren globalizazioaren kausak eta ondorioak aztertzea eta balioestea, eta jakitea zer eginkizun duten nazioarteko ekonomia-erakundeek haren erregulazioan.</p> <p>22. Hazkundeak, krisi ekonomikoek, ekonomia-integrazioak eta merkatu globalak pertsonen bizi-kalitatean, ingurumenean eta aberastasunaren tokian-tokiko eta munduko banaketan zer ondorio dituzten aintzat hartzea; bereziki aipatzea garatuta ez dauden herrialdeen ekonomia hazteko arazoak eta pobrezia-arazoak, harreman ekonomiko desorekatuek eragindakoak; eta merkataritza-truke bidezkoago eta zuzenagoen beharra adieraztea.</p>	<p>19.3 Ordainketa-balantza baten bidez adierazten ditu ekonomia baten eta harengandik kanpokoaren arteko harremanak.</p> <p>19.4 Ordainketa-balantzaren eta eskualde ekonomiko baten egitura produktiboaren arteko erlazioa aztertzen du.</p> <p>19.5 Lotu egiten ditu ordainketa-balantzaren bilakaera eta dibisen erreserbaren bilakaera.</p> <p>19.6 Monetaren kanbio-tasaren eta nazioarteko merkataritzaren bilakaera zer ondorio dituen egiaztatzen du. Nazioarteko merkataritza-fluxuen ezaugarriak eta kanbio-tasaren aldaketek ekonomietan eragiten dituzten ondorioak adierazten ditu.</p> <p>20.1 Europar Batasunak ekonomiaren alorrean egindako lankidetzeta eta integrazio ekonomikoko prozesua azaltzen eta hausnartzen du, eta testuinguru globalean Euskal Herriarentzat eta Espainiarentzat dituen ondorioak eta inplikazioak balioesten ditu.</p> <p>21.1 Herrialdeen arteko truke ekonomikoen arazoak azaltzen ditu.</p> <p>21.2 Globalizazio ekonomikoak herrialdeetan dituen ondorioak eta inplikazioak azaltzen ditu, eta haiek arautzeko eta koordinatzeko beharrianaz hausnartzen du.</p> <p>22.1 Hazkunde ekonomikoan eragiten duten faktoreak eta aldagaiak identifikatzen ditu.</p> <p>22.2 Bereizi egiten ditu hazkundeak eta garapena.</p> <p>22.3 Badaki zer eragin dituen hazkundeak aberastasunaren banaketan, ingurumenaren degradazioan eta bizi-kalitatean.</p> <p>22.4 Garapen-bidean diren herrialdeek mendealdeko herrialdeen garapen-ereduari jarraitzeko dituzten arazoak aztertzen ditu.</p> <p>22.5 Arreta handiz behatzen ditu ipar-hego izaerako truke-harreman desorekatuak.</p> <p>22.6 Ingurumenaren aldeko jarrerak ditu, ingurumenaren aldagaia aztertzen eta balioesten du erabaki ekonomikoak hartzean; eta, berariaz, nazioartean garapen jasangarria lortzeko aukerak aztertzen ditu.</p> <p>22.7 Ingurumen-ondasunek produkzio-faktore moduan duten eskasia behatzen du, eta input-ak hornitzen eta degradazio-prozesuan dauden hondakinak hartzen dituzten aldetik, kostuetan adieraz daitezkeela egiaztatzen du.</p> <p>22.8 Aintzat hartzen ditu sektore eta gizarte talde askotan ageri diren interes-gatazken eraginak.</p>
--	--

<p>23. Aberastasuna birbanatzeko abian jar daitezkeen neurriak, haien mugak eta albo-ondorioak aztertzea, eta zuzentasunari laguntzen dioten neurriak aztertzea, kasu jakin batean.</p> <p>24. Adibide esanguratsuen bidez azaltzea eta argitzea zer eginkizun dituen estatuak merkatu-ekonomiako sistemetan, estatuak zer tresna nagusi erabiltzen dituen adieraztea, eta aintzat hartzea zer abantaila eta desabantaila dakartzan jarduera ekonomikoan duen eginkizunak. Harreman ekonomikoetan parte hartzen duten beste eragile batzuek zer eginkizun duten azaltzea.</p>	<p>23.1 Kezka ageri du banaketaren ekitateaz.</p> <p>23.2 Ikuspegi kritiko batez aztertzen ditu banaketa-mekanismoek eragindako desberdintasun ekonomikoak eta neurri jakin batzuek egin dezaketena desberdintasun horiek zuzentzeko.</p> <p>23.3 Zerga-politika eta birbanaketarako gainerako bitartekoak balioesten ditu, ekitaterako eta elkartasunerako elementuak diren aldetik.</p> <p>23.4 Kasu jakinetan aplikatzen ditu administrazio publikoek –Estatuko Administrazio Orokorrak, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udalerriek– zehaztutako aurrekontu-politikak.</p> <p>24.1 Estatuaren hainbat funtzio identifikatzen ditu: fiskalak, egonkortzekoak, birbanatzekoak, arautzekoak eta ondasun eta zerbitzu publikoak hornitzekoak.</p> <p>24.2 Administrazio publikoek kasuan kasu erabiltzen dituzten politika ekonomikoko tresna oinarritzkoak bereizten ditu.</p> <p>24.3 Estatuak ekonomian izan ditzakeen interbentzio-mailak behatzen ditu, bai eztabaidagarriak izan daitezkeenak, bai neurri jakinen ondorioak balioesteko aukera ematen dutenak.</p>
---	---

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1go. EBALUAZIOA:

1. Jarduera ekonomikoa.....10 ordu
2. Sistema ekonomikoak18 ordu
3. Ekoizpena eta elkarrekiko menpekotasun ekonomikoa8 ordu

2. EBALUAZIOA:

4. Trukea eta merkatua.16 ordu
5. Magnitude nazionalak eta ekonomia baten adierazleak20 ordu

3. EBALUAZIOA

6. Estatuaren parte-hartzea ekonomian12 ordu
7. Ekonomiaren finantza-alderdiak12 ordu
8. Hazkunde ekonomikoa, garapena eta iraunkortasuna12 ordu

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Irakasleak gaia azalduko du ikasle guztientzat
Azalpena egin ondoren, kasu praktikoak planteiatuko ditu, ikasleek ebatzi ditzaten
Ikasleak, bakarka zein taldeka, lanean arituko dira gelan
Irakasleak jarraipen eta laguntza pertsonala bermatuko du
Beste alde batetik gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko beren beregiko atazak egingo dira. Ataza horiek prestatzeko formazioa lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa 3. ebaluazioan zehar ikasgeletan gauzatuko da.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>Ebaluazio bakoitzean froga ezberdinak egingo dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Azterketa bat, non ikasle bakoitza bakarka ebaluatuko dugun. ● Bakarka edo taldeka egindako lanak, zeinetan ikaslearen taldeko zein bakarreko lana ebaluatuko dugun ● Talde lanaren aurkezpena, zeinean talde bakoitzeko kideen aurkezpena ebaluatuko dugun. <p>Froga hauek aparte, klasean parte hartze aktiboa eta lana ere ebaluatuko da</p>	<p>Froga bakoitzak bere pisu espezifikoak izango du:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Azterketak nota osoaren %60 izango da. ● Taldean zein bakarka egindako lana nota osoaren %30a izango da. ● Talde laneko nota kalkulatzeko, %50 taldeko lanaren nota izango da, eta beste %50 banakako aurkezpena izango da. ● Azkenik, klasean parte hartze aktiboa eta lana nota osoaren %10 izango da. <p>Ebaluazioa gainditzeko, nota osoaren %50 lortu beharko da.</p> <p>Ebaluazio bakoitzean ikasleren batek ebaluazio horretako klase orduen %20 baino gehiagora huts egingo balu justifikatu gabe, ebaluaziorako eskubidea galduko luke, eta ebaluazio hori berreskuratzeko deialdi arruntera aurkeztu beharko litzateke.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errehabilitazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Ikasleak ebaluazioren bat gainditzeko ez badu berreskurapen froga bat izango du, ala irakasleak egoki baderitza, ikasleak gelakideen aurrean aurkeztuko du lan bat. Gainditu ezker, ebaluazioaren nota 5 izango da. ● Froga zein lana prestatzeko irakasleak ikasleari lagunduko dio bere prestakuntza bideratuz. ● Kurtso osoa gainditzeko ebaluazio guztiak aprobatuta izan behar ditu. 	

- Ohiko deialdian gainditzen ez duen ikasleak, ekainaren bukaeran ezohiko deialdian gainditzeko aukera izango du.
- Ezohiko deialdia gainditzeko, 5 atera behar du, gutxienez

OHARRAK / *OBSERVACIONES*